

GERNIKAKO ARBOLA GEIXORIK

ARETXA TA ASKATASUNA

Euskaldunentzat aretxa aspalditik arbola santua izan da. Askatasunaren ezaugarri.

Euskaldunak legeak egiteko, geienetan, aretxaren kerizpean alkartzen ziran.

Labur **din**, Ustaritz erriaren ondoan, «Kapito-arri» izeneko baso zabalean.

Arabian Arriagan, Gasteiz ondoko Lakoa zelaian.

Bizkaiko Enkarta-errietan Abellanedako arbolapean.

Durango aldean Gerediagako zugaizpean.

ARETXA TA ERRIA GAISORIK

Arbola guzti oneek ondatu dira; Gernikakoak bakarrik irauten dau, eta bera da, izan ere, izenik andiena mundu zabalean dauan aretxa.

Gaur Batzar-etxean gordeta dagoan arbola zaarra 15-garren gizaldikoa da, eta 1.892 garren urtean guztiz igartu zan

Baina galdu aurretik beste aretx gazte bat landatu eben, aurrekoaren semea, 1861-garren urtean.

Bigarren arbola onek lau urte ba daroaz ezkurrik emon barik, eta laster igartuko da.

Ez da arritzekoa.

Berrogei urte luze egon gara, bai arbola, ta bai euskaldunok arnasarik ezin arturik...

Baiña au alde batera utzi daigun...

ARETX BARRIA TA ERRI BARRIA

Beste arbola gazte mardul bat dago, sei urtekoa, bigarren zaar onen ordeztatzeko.

Aretx barri gazte au izan bedi, Bizkai eta Euskalbarri barri eta indartsu baten ezaugarri.

SUAREN DEIA

Baiña Gernikako Batzarrak zelan egiten ziran?

Antziñatean Batzar Nagusira deitzeko su andiak egin, eta adarrak jotzen ziran Bizkaiko bost mendietan: Gorbeia, Oitz, Sollube, Ganekogorta eta Kolitsa mendi tontorretan.

Suak ikustean erri baktokak, demokrazi bidez, ordezkari bi (diputado bi) aukeratzen zituen Gernikara joateko. Batzar-Nagusia eguna etorten zanean Bizkaiko Jauna Gernikako arexpean agertzen zan, ordezkari nagusi bi, eta beste idazkari bi ondoan zituela.

BATZARREAN

Gero, Gernikan boto-eskubidea eukien, errien izenak irakurtzen ziran, eta erri baktokaren izenak irakurri ala



erri aretako ordezkariak aurreratzen ziran, euren aukerapaperak eskuetan.

Erri guztiak igaro ondoren Batzarretxera joaten ziran Meza entzutera.

Mezatan abade batek ordezkariari esaten eutsen: baktokak bere onari bakarrik begiratu barik, Bizkai osoaren onerako lege zuzenak emon egiezala.

Gero Batzar Nagusia as ten zan.

ZABALAK

Batzarrak ateak zabalik egiten ziran, eta bizkaitar asko egoten zan entzuten eta hegira, zelako legeak emoten ziran.

Ordezkariak euskeraz naiz erderaz berba egiten eben, baiña legeak idatzi beti erderaz idazten ziran.

BAI, BAIÑA EZ

Bizkaiko Jaunak Bizkaitarren askatasunaren kontra, naiz Bizkaiko legeen aurka, beste legeen bat emon gura ba eban, Bizkaiko ordezkariak «Pase Foral» egiten eutsoen, esanaz «legea egingo da, baiña ez da beteko», edo bardin dana «bai, baiña ez».

ALDUNDIA

Batzarrak udan egiten ziran, eta 10-12 egun irauten eben. Batzarra amaitzean, 12 gizon aukeratzen ziran, emon ziran legeak gero Bizkai guztian bete-azoteko. Amabi gizon oneik «Diputazioa» artu eben izena.

Gernikako azken BATZAR - NAGUSIA orain 101 urte egin zan. Noiz ikusiko dogu guk urrengo BATZAR - NAGUSIA?